

KARRAPE IRRATIAN EUSKALKIEN ERABILERA

Arantxa Iparragirre

Tokian tokiko euskalkiek beren garantiza dute inguru, eskualde edo herri horren hizkeraren nortasuna finkatzeko balio behar dutelako.

Leitza bezalako herri euskaldunean irratian bertako euskalkia erabiltzea premiazkoa dela uste dut, beti ere ahalik eta era naturalenean egiten bada. Euskalkien erabilera bermatu egin behar dugu kolaboratzaile herritarrekin jardunean ari garenean edota bertako entzulegoarekin harremanetan ari garenean ere. Irratian gainera transmisio lana egin behar dugula iruditzen zait, bestela urte gutxira gure herriko gazteak ez dira jakitun izanen beren guraso edo aitona-amonen hizkera zeinen aberatsa den baloratzean. Esapide edo espresio asko galduz joanen da berez, poliki-poliki, Leitzako biztanlegoa aldatzen doan heinean.